



Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariaren ebazpena, zeinaren bidez ebazten baita Lehendakariaren abenduaren 10eko 44/2020 Dekretuaren eranskineko 9.1 puntuan aurreikusten diren neurrien aplikazioaren eraginpean dauden udalerrien zerrenda

Lehendakariaren abenduaren 10eko 44/2020 Dekretuaren (prebentzio-neurri espezifikoak testu bakar batean bildu eta eguneratzeko, alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko) eranskineko 9.1 puntuan (2020ko abenduaren 11ko 248. zenbakiko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria), honako hau ezartzen da:

“1) *Ostalaritza- eta jatetxe-establezimenduak berriz ireki ahal izango dira, honako arau hauen arabera:*

5.000 biztanletik gorako udalerrietan, jendearentzat berriz irekitzeko, beharrezkoa izango da COVID-19ak eragindako kasu positiboan azken 14 eguneko Intzidentzia Tasa Metatua 500 baino gutxiagokoa izatea 100.000 biztanleko, eta establezimenduak itxita egon beharko dira tasa hori aipatutakoaren berdina edo handiagoa bada. Osasun Sailaren webgunean (<https://www.euskadi.eus>), astero, astelehenetan eta ostegunetan, Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariaren ebazpen bat zabalduko da, udalerrietako tasen zerrendarekin, eta erreferentzia eraginkorra izango da, hurrengo egunetik aurrera establezimenduak irekitzeko edo itxeko.

5.000 biztanletik beherako udalerrietan, tokiko egoera epidemiologikoak edo kutsatze-agerraldiek hala eskatzen dutenean, Osasun Sailak bidezko neurriak hartuko ditu establezimenduak itxeko.”

Arau horretan ezarritakoa betetzeko, eta Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretuaren (apirilaren 11ko 80/2017 Dekretua) 9. artikulua esleitzen dizkidan funtzioen arabera,

Resolución de la Directora de Salud Pública y Adicciones por la que determina la relación de municipios afectados por la aplicación de las medidas previstas en el punto 9.1 del anexo del Decreto 44/2020, de 10 de diciembre, del Lehendakari.

El punto 9.1. del anexo del Decreto 44/2020, de 10 de diciembre, del Lehendakari, de refundición en un único texto y actualización de medidas específicas de prevención, en el ámbito de la declaración del estado de alarma, como consecuencia de la evolución de la situación epidemiológica y para contener la propagación de infecciones causadas por el SARS-CoV-2, publicado en el Boletín Oficial del País Vasco núm. 248, de 11 de diciembre de 2020, establece lo siguiente:

“1) *Podrá procederse a la reapertura al público de los establecimientos de hostelería y restauración conforme a las siguientes reglas: En los municipios de más de 5.000 habitantes, la reapertura requerirá la presencia de una Tasa de Incidencia Acumulada de casos positivos por COVID-19 en los últimos 14 días que sea inferior a 500 por cada 100.000 habitantes, debiendo permanecer cerrados los establecimientos si dicha Tasa es igual o superior a la citada. En la página web del Departamento de Salud (<https://www.euskadi.eus>) se divulgará los lunes y jueves de cada semana una resolución de la Directora de Salud Pública y Adicciones con la relación de las Tasas por municipio, siendo eficaz su referencia a efectos de la apertura o cierre de los establecimientos a partir del día siguiente.*

En los municipios con población inferior a 5.000 habitantes, cuando la situación epidemiológica local o la eventual existencia de brotes de contagio lo requieran, el Departamento de Salud adoptará las medidas de cierre de establecimientos que procedan.”

En cumplimiento de lo establecido en dicha norma y en virtud de las funciones que me vienen atribuidas por el artículo 9 del Decreto 80/2017, de 11 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Salud,

**HONAKO HAU EBAZTEN DUT:**

LEHENENGOA. – Argitaratzea COVID-19ak eragindako kasu positiboen azken 14 eguneko Intzidentzia Tasa Metatua 100.000 biztanleko 500ekoa edo handiagoa duten 5.000 biztanletik gorako udalerrien zerrenda. Honako hauek dira udalerrri horiek: **Beasain, Bermeo, Lazkao, Lekeitio**

BIGARRENA. – Onestea, ebazpen honi erantsitako txosten epidemiologikoekin bat etorritik, ostalaritzako establezimenduak eta jatetxeak ez irekitzea edo ixtea dakarren egoera epidemiologikoa bizi duten 5.000 biztanletik beherako udalerrien zerrenda. Honako hauek dira udalerrriak: **Aizarnazabal, Ataun, Eskoriatza, Ispaster, Mundaka, Olaberria**

HIRUGARRENA. - Ebazpen honen ondorioak indarrean egongo dira, harik eta hurrengo ebazpena eman arte, Lehendakariaren abenduaren 10eko 44/2020 Dekretuaren eranskineko 9.1 puntuan aurreikusten diren baldintzetan eta maiztasunean.

LAUGARRENA.- Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen, eta gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu dakioke Osasun Sailburuordetzan, hilabeteko epean, Osasun Sailaren web-orrian argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

RESUELVO:

PRIMERO. – Dar publicidad la relación de municipios de más de 5.000 habitantes cuya tasa de incidencia acumulada de casos positivos por Covid-19 en los últimos 14 días iguala o supera la cifra de 500 por cada 100.000 habitantes. Dichos municipios son los siguientes: **Beasain, Bermeo, Lazkao, Lekeitio**

SEGUNDO. – Aprobar, de acuerdo con los informes epidemiológicos anexos a esta resolución, la relación de municipios con población inferior a 5.000 habitantes cuya situación epidemiológica requiere la no apertura o el cierre de los establecimientos de hostelería y restauración ubicados en ellos. Dichos municipios son los siguientes: **Aizarnazabal, Ataun, Eskoriatza, Ispaster, Mundaka, Olaberria**

TERCERO. - Esta resolución mantendrá sus efectos, hasta que sea sustituida por otra posterior que se dicte en los términos y con la periodicidad prevista en el punto 9.1 del anexo al Decreto 44/2020, de 10 de diciembre, del Lehendakari.

CUARTO. - Esta resolución, que no agota la vía administrativa, podrá ser recurrida en alzada ante el Viceconsejero de Salud en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación en la página web del Departamento de Salud.

Vitoria-Gasteiz, 2021ko urtarrilaren 7a
En Vitoria-Gasteiz, a 7 de enero de 2021.

Sin. / Fdo.: **Itziar LARIZGOITIA JAUREGUI**
OSASUN PUBLIKOAREN ETA ADIKZIOEN ZUZENDARITZA



DIRECTORA DE SALUD PÚBLICA Y ADICCIONES

ERANSKINA. 14 EGUNEAN METATUTAKO INTZIDENTZIA-TASA 100.000 BIZTANLEKO 500 BAINO HANDIAGOA DUTEN UDALERRIEI BURUZKO INFORMAZIOA**2021ko urtarrilaren 6ko datuak****5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrriak**

UDALERRIA / MUNICIPIO	Tasa 14 días
Beasain	591,97
Bermeo	685,98
Lazkao	568,18
Lekeitio	622,67

5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrriak

UDALERRIA / MUNICIPIO	Tasa 14 días	nº casos 7 días	Tasa 14 días UAP
Aizarnazabal	6762,03	33	550,67
Ataun	915,86	5	688,13
Eskoriatza	828,66	12	549,69
Ispaster	537,63	4	540,00
Mundaka	542,59	7	648,60
Olaberria	981,46	6	688,13

Honako hauek dira 5.000 biztanletik beherako udalerrietan ostalaritzako establezimenduak eta jatetxeak ez irekitzea edo ixtea erabakitzeke erabiliko diren irizpide epidemiologikoak:

- Azken 14 egunotan Covid-19aren kasu positiboen intzidentzia-tasa metatua udalerrian 500ekoa edo handiagoa izatea 100.000 biztanleko.
- Azken 14 egunotan Covid-19aren kasu positiboen intzidentzia-tasa metatua udalerriri dagokion oinarritzko osasun-eremuan 500ekoa edo handiagoa izatea 100.000 biztanleko.
- Udalerrian Covid-19aren kasu positiboen kopurua azken 7 egunetan 2 baino gehiago izatea.



ANEXO. INFORMACIÓN RELATIVA A MUNICIPIOS CON INCIDENCIA ACUMULADA EN 14 DÍAS SUPERIOR A 500 CASOS POR 100.000 HABITANTES

Datos correspondientes al día 6 de enero de 2021

Municipios de más de 5000 habitantes

UDALERRIA / MUNICIPIO	Tasa 14 días
Beasain	591,97
Bermeo	685,98
Lazkao	568,18
Lekeitio	622,67

Municipios de menos de 5000 habitantes

UDALERRIA / MUNICIPIO	Tasa 14 días	nº casos 7 días	Tasa 14 días UAP
Aizarnazabal	6762,03	33	550,67
Ataun	915,86	5	688,13
Eskoriatza	828,66	12	549,69
Ispaster	537,63	4	540,00
Mundaka	542,59	7	648,60
Olaberria	981,46	6	688,13

Los criterios epidemiológicos utilizados para determinar la no apertura o el cierre de los establecimientos de hostelería y restauración en los municipios de menos de 5.000 habitantes son:

- Tasa de incidencia acumulada de casos positivos por Covid-19 en los últimos 14 días igual o superior a 500 por cada 100.000 habitantes en el municipio.
- Tasa de incidencia acumulada de casos positivos por Covid-19 en los últimos 14 días igual o superior a 500 por cada 100.000 habitantes en la zona básica de salud correspondiente al municipio
- Número de casos positivos en el municipio por Covid-19 durante los últimos 7 días superior a 2.